

MAITAGARRIRIK GABEKO IPUINAK

HELBURUAK

- Ipuinek dituzten elementuak identifikatu: fantasiakoak eta egiazkoak
- Komunikabideek kontatzen dizkiguten istorioak aztertu, istorio horien protagonisten ikuspuntuetatik.
- Haurrek babeserako eskubidea dutela jakin, haien jatorria eta egoera zeinahi direla.
- Beste hurrekin, beste herrialdeetakoekin, zein gure inguruko hurrekin enpatizatze gakoak ikasi.

BEHARREZKO MATERIALAK

- Bideoa: Mustafären ibilaldia sarean eskuragai: <https://youtu.be/G30TWjLM8ck>
- Bideoa: Ivine eta bere bururdia sarean eskuragai: <https://youtu.be/vUzq3MttLgk>
- Bideoa: Malak eta ontzia sarean eskuragai: <https://youtu.be/qddgEIL4oeE>


LAGUNTZA-MATERIALA

- Jarduera eta baliabideen gida: neska-mutil migratzaile edota errefuxiatuen eskubideetarako eta herritartasun globalerako hezkuntzari buruzkoa. Gida eskuragai dago web orri honetan: unicef.es/educa

Batzuetan, ipuinek haurrak protagonistak diren egoerak kontatzen dituzte eta, horietan, bizi beharko ez lituzketen arazoei aurre egin behar diete hurrek: pertsonaia gaiztoa, basapizti, sagar pozoitu, bizirauteko arazo, diskriminazio, giltzape eta isolamendu, herri suntsituak... Ipuinetan maitagarrirei esker justizia gailentzen da eta protagonistek euren eskubideak berreskuratzen dituzte. Baina, zer gertatzen da ipuin batek benetako istorio bat kontatzen duenean eta magiarik erabili ezin daitekeenean? UNICEFeko Unfairytale izeneko sailean, hiru haur dira haien istorioa lehenengo pertsona kontatzen dutenak maitagarri-ipuinak izango balira. Istorioei bukaera zoriontsu bat emateko, ikasgelako taldea izango da kasu honetan maitagarria.

Jardueraren garapena

Bideoak ikasgelan proiektatuko ditugu (hirurak edo horietako bat). Protagonistak bere ama-hizkuntzan kontatzen du istorioa; beraz, azpituak jarraitu edo ozenki irakurri ditzakegu txandaka, denon artean.





Bideoak ikusi bitartean edo bukaeran, galderak egin ditzakegu istorioak hobeto ulertzen laguntzeko:

- Zergatik ekin zioten protagonistek bidaiari? Bidaia ez egiteko aukerarik izan al zuten?
- Bidaia arriskutsua al da? Zein arriskuri aurre egin behar zieten geldituz gero?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten zuten? Nongoak dira?
- Zer utzi dute atzean? Zer espero dute lortzea?
- Bidaian zeri egiten diote uko?
- Nola sentitzen dira? Nola sentituko zinateke zu?
- Norbaitek laguntzen al die? Nork lagundu diezaieke?
- Bideoa eszenarik identifikatzen al duzu, albisteetan ikusitako irudietan?
- Nola jarraituko zenituzke istorioak, bukaera zoriontsu bat izan dezaten? (magiarik erabili gabe).

Eztabaida bukatzeko, haurren babeserako eskubidearen eta haiei laguntzeko betebeharraren inguruko hausnarketa egin dezakegu. Maitagarri-ipuinetan, arazoak magia bitartez konpontzen dira, baina benetako istorioetan, haur batek arazoak dituenean, (urrutiko herrialdeetan edo gure inguruan) haur horri laguntzeko erantzukizuna dugu.

HAURREN EGUNEKO OSPAKIZUNA



Azaroaren 20an ospatzen da haur guztien eskubideen eguna. Ospakizun egun hori erabili dezakegu denon artean harrera-pasaporte bat egiteko —nortasunerako, herritartasunerako eta babeserako eskubideak sendotuko dituen— babesleku eta harrera bila dauden haurrak sinbolikoki gonbidatzeko aukera emango diguna; esaterako, Mustafá, Ivine eta Malak. Pasaporte pertsonalizatu eta deskargatu esteka honetan: unicef.es/educa

GIZATASUN-PASAPORTEA



unicef

GIZATASUN-PASAPORTEA



unicef



Argitalpena
UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/educa

Haurren eskubideen, garapen iraunkorrerako eta mundu-mailako hiritartasunaren inguruko ekintza, baliabide eta hezkuntza materialak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntza eta Hiritarsun Globaleko lanaren parte dira, lehenago Enredate markapean eta enredate.org web gunean argitaratuta egon direlarik. Bertan erakutsitako ekintza eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspuntua isladatu behar.

UNICEFek haur guztien ongizatea eta eskubideak sustatzen ditu egiten dituen ekintza guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta eremutan lanean dihardugu konpromiso hau ekintza praktikoetan bilakatzeko, gure esfortzuak batez ere ume ahul eta baztertuenetara bideratuz, haur guztien ongizaterako, edonon.



cooperación
española

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzaturiko proiektu baten parte da. Argitalpen honen edukiak ez du nahitaez islatzen AECIDen iritzia.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentziapean sortua izan da, beste lizentzia mota bat espreski aipatzen den edukietan izan ezik.